MOZIOA

Pasaiako EH BILDU Udal Taldeak honako mozioa aurkezten du **gaixotasun larriak dituzten presoak askatzeko eta indarrean dagoen legedia aplikatzeko.**

AZALPENA

Espetxea, bai bere egituragatik eta bai bere arautegiagatik, barnean dauden pertsonak mugatzen eta baldintzatzen dituen eremua da. Beraz, bertan bizitzera behartuak egoteaz gain, gaitzen bat pairatzen dutenek era berezian bizitzen dituzte traba eta muga horiek.

Eremu horren berezko tentsioak, etengabeko ziega eta espetxe aldaketek (gaixotasunaren jarraipen egokia egitea eragozten dutenak, besteak beste), bakartze erregimenak eta ezartzen diren espetxe politika ezberdinek eragin negatiboa dute osasunean oro har, eta are gehiago gaixotasunean.

Preso gaixo larrien egoera nabarmendu nahi dugu. Horien muturreko larritasuna dela-eta, kalean egon beharko lukete, irizpide profesionalen arabera, haien gaixotasunen jarraipen zorrotza egin ahal izateko.

Kasu hauetan, gainera, beharrezkoa ikusten dugu haien inguru afektiboaren hurbiltasuna, jarraipena zein tratamendua bermatzeko. Halere, azpimarratu beharra dago 11 kasu hauetaz gain, beste 8 kasu sailkatuak ditugula egun gaixo larri gisa espetxe baldintza hauetan, nahiz eta haien borondateagatik haien izenak publiko ez egin.

Oier GOMEZ MIELGO.
- Kartzela zigorra Meauxen (Frantzian) betetzen ari da.
Buruan eta pelbisean metastasia eragin dion Ewing sarkomak jota dago, larriki gaixo. (Sei hilabeteko bizi-itxaropena eman diote).

Josetxo ARIZKUREN RUIZ
-A Lama (Pontevedra). Kardiopatia iskemiko larria.

Garikoitz ARRUARTE SANTA CRUZ
-Almeria. Espondilitis ankilosante izeneko gaitza du.

Jagoba CODÓ CALLEJO
-Castelló II (Albocasser. Espondilitis ankilosantea B 27 negatiboa. Horrez gain, pluripatologia koadroa du.

Iñaki ETXEBERRIA MARTIN
–Topas (Salamanca). Miopia magnoa koriorretinitis miopikoarekin. Hemorragia eskuineko begiko erretinan, ikusmen-zorroztasunaren galera, ezkerreko begian afakia,

bi aldeko glaukoma.

Ibon FERNANDEZ IRAD
-Lannemezan, Esklerosi anizkoitza.

Gorka FRAILE ITURRALDE
-Badajoz. Mingainaren kartzinoma epidermoideoa.

Aitzol GOGORZA OTAEGI
-Basauri (Bizkaia). Urte luzeetako eboluzio kronikoa eta ezgaitasunezkoa duen nahasmendu obsesibo-konpultsiboa. Honi lotutako desoreka depresiboa ere badu, ideia autolitikoekin.

Ibon IPARRAGIRRE BURGOA
-Alcalá-Meco. VIH C-3 estadioko infekzioa, lesio neurologiko garrantzitsuarekin.

Jose Ramon LOPEZ DE ABETXUKO LIKINIANO
-Villabona (Asturias). Bradikardia sintomatikoa, prostatako adenoma, zerbikoartrosia, bialdeko koxartrosia.

Jesus Mª MARTIN HERNANDO
-Zaballa. Eskizofrenia paranoidea eta antsietate nahasmendu orokortua

Osasun eskubideak bestelako neurrien gainetik egon behar du beti.
Hori dela-eta, egoera hauek kontuan hartuta:

HITZARMENERAKO PROPOSAMENA:

1.- Pasaiako Udalak eskumena duten frantziar eta espainiar agintariei eskatzen die indarrean dagoen legedia, frantziarra eta espainiarra zein nazioartekoa, aintzat har dezatela, gaixotasun larriak sufritzen dituzten presoak askatzeko; bereziki datozen egunotan Oier Gomez Mielgoren kartzela egoeraren inguruan hartu behar dituzten erabakietan (Frantzian), medikuek sei hilabeteko bizi-itxaropena eman baitiote.

2.- Pasaiako Udalak akordio hau helaraziko dio Oier Gomez Mielgoren kartzela egoerari buruz erabaki behar duen epaitegiari, bai eta Frantziako Justizia Ministerioari ere, Gomez haren jurisdikziopean eta babespean baitago.

Pasaian, 2017ko Apirilaren 18an.

Izp.: Miguel Mari Torrea Etxabe
Pasaiako EH BILDU Udal Taldea